



PRENTSARAKO OHARRA

BATZORDEAN EZ DIRA ONETSI GIZARTE EKINTZA, AZPIEGITURA ETA LURRALDEAREN GARAPEN ETA EUSKARA, KULTURA ETA KIROL SAILEN AURREKONTUEN AURREAN AURKEZTU DIRAN ZUZENKETA-ESKEAK

- **Oposizinoko taldeek, datorren abenduaren 27ko Osokoan egingo dan behin betiko bozketarako erreserbau ditue euren zuzenketa-eske guztiak**

(Bilbon, 2019ko abenduaren 16an).- Bizkaiko Batzar Nagusietako Ogasun eta Finantzetako Batzordeak gaur egin dituan hiru saioretan, Gizarte Ekintza, Azpiegitura eta Lurralde Garapen eta Euskara, Kultura eta Kirol Sailen aurrekontuak onetsi dira. Oposizinoko talde guztiek –EH Bilduk, Elkarrekin Bizkaia eta Talde Bereziak / PP Bizkaia– aurkeztu dituen zuzenketa-eske guztiak atzera bota ditue, Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeen kontrako botoakaz.

Lehenengo Batzordean, Gizarte Ekintza Sailaren programa eta atal bakoitzaren aurrean aurkeztutako zuzenketa-eskeak bozkatu dira, Sergio Murillo diputatua bertan egoala. Guztira, oposizinoko taldeek 70 zuzenketa-eske aurkeztu ditue sail horretako aurrekontu proiektuaren aurrean. Aldaketarako proposamenak atzera bota ostean, Gizarte Ekintza Sailak 2020rako aurreikusita daukazan programak banan-banan onetsi dira.

Horren ostean, Imanol Pradales Diputatuak zuzentzen dauen Azpiegitura eta Lurralde Garapen Sailaren aurrekontuen aurrean aurkeztutako 37 zuzenketa-eskeak bozkatu dira. Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeen kontrako botoakaz atzera bota dira. Kasu batzuetan, oposizinoko talderen baten botoak be gobernuko taldeen botoei gehitu jakez.

EH Bilduk, Elkarrekin Bizkaia eta Talde Bereziak / PP Bizkaia, datorren abenduaren 27an Gernikako Batzarretxean egingo dan 2020ko Bizkaiko Aurrekontu Proiektuaren ganeko Osokoan eztabaidetako eta bozkatzeko erreserbau ditue zuzenketa-eske guztiak.

Gaur egon dan azkenengo Ogasun eta Finantzetako Batzordean, bigarren agintaldiz jarraian Lorea Bilbao Diputatu jeltzalea buru dan Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren aurrekontuen aurrean aurkeztutako zuzenketa-eskeak bozkatu dira. Aurreko saioretan gertau dan moduan, EH Bilduk, Elkarrekin Bizkaia eta Talde Bereziak / PP Bizkaia aurkeztu dituen 75 zuzenketa-eskeak atzera bota dira.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

RECHAZADAS EN COMISIÓN LAS ENMIENDAS A LOS PRESUPUESTOS DE LOS DEPARTAMENTOS DE ACCIÓN SOCIAL, INFRAESTRUCTURAS Y DESARROLLO TERRITORIAL Y EUSKERA, CULTURA Y DEPORTE

- **Los grupos de la oposición se han reservado todas sus enmiendas para su votación definitiva en el Pleno del próximo día 27.**

(Bilbao, a 16 de diciembre de 2019).- Los presupuestos de los Departamentos de Acción Social, Infraestructuras y Desarrollo Territorial y Euskera, Cultura y Deporte han sido aprobados en sendas sesiones de la Comisión de Hacienda y Finanzas de las Juntas Generales de Bizkaia. Todas las enmiendas presentadas por los grupos de la oposición – EH Bildu, Elkarrekin Bizkaia y Grupo Mixto / PP Bizkaia – han sido rechazadas mayoritariamente con los votos en contra de Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos.

En la primera comisión, se han ido votando las enmiendas presentadas a cada uno de los programas y apartados presupuestarios de Acción Social, con la presencia de su titular, el Diputado Sergio Murillo. En total, los grupos de la oposición habían presentado 70 enmiendas al proyecto de presupuestos de este departamento. Tras rechazarse las propuestas de modificación, se han ido aprobando uno a uno los programas de Acción Social para el año 2020.

A continuación, se han votado las 37 enmiendas a los presupuestos del Departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial, que dirige el Diputado Imanol Pradales. Una a una han sido rechazadas con los votos en contra de Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos, a los que se han unido en ocasiones los votos de algunos de los grupos de la oposición.

EH Bildu, Elkarrekin Bizkaia y Grupo Mixto / PP Bizkaia se han reservado todas las enmiendas para su debate y votación en el Pleno sobre el Proyecto de Presupuestos de Bizkaia para el año 2020 que se celebrará el próximo 27 de diciembre en la Casa de Juntas de Gernika.

En la última Comisión de Hacienda y Finanzas celebrada hoy, se han votado las enmiendas a los presupuestos de Euskera, Cultura y Deporte, que encabeza la Diputada jeltzale Lorea Bilbao por segundo mandato consecutivo. Igual que en las anteriores reuniones, se han rechazado las 75 enmiendas planteadas por EH Bildu, Elkarrekin Bizkaia y Grupo Mixto / PP Bizkaia.